


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

221n. zenbakia
iraila 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ESTIBALIZ'KO AMA
ARABARREN ZAINDARIA
(IRUDIA TA ELEIZEA)

MENDITXO BATEN GAINEAN

Gizonaren almenak ederrak dira guztiak. Egilleak, ondo, ekian gure bear izanaren barri ta bizitzarako bear genduzan almenez, ondo orniduta itzi ginduzan. Gure begiak izar bi legez dira, beti aurrera begira. Eurak barik Mora ezin joan, eurak dira gure gidari bizitzako ordu latz eta gozoetan.

Egunaren sorreran zabaltzen dira begiak izadira begira. Dana dago eder, solo ta belardi, eta aldapan gora doan bidetik zerurako atea dirudi. // Lora zuriak ta lamos gorriak baratz orlegian eguzki printzetara dizdizka dagoz, usain gozua zabalduz. Izadi guztia ememiñetan dago bizi-garrez ta usain gozoz ingurua alaiturik ta zentzua eder guztiaren armenetan, barri-giroz zoramenetan.

Izadia ta gizakia alkarren lagun aundi dira. Izadi da gizonaren onipea ta gizona lurreko on guztiaren gozartzaillea. // Egilleak era orretan jarri eban gizonaren bizia emen, lurrean, eta euskaldunarentzat, alan bearrez, Auñamendi aide au izango zan. // Egiz, menditar-te bikaiña, gogoz lan egin nai dauanarentzat. Gaiñak, arruak eta luuak era guztietako lurak daukaz orlegiz jantzirik ta gizonaren eskua, bizi bizirik, agertu izan da gizaldien gizaldietan.

Egiz eguskaldun luna gure arbosen Aberria da ta euren odole-tik datorkigu gure biziaren iturria ta mendi, arrua ta giza izatez, egoki landua izan da gizaldien gizaldietan. // Zentzuna danez goitik bear dau gizonak ta euskaldunak eskolaz ta sinismenez jakin dau bere nortasuna zuzendu ta edertzen. // Gure lurraldeak goi ta be, tontor eta anua inguru guztiak ezbarðiñak daukaz, baiña euzko izakera izatez jatorkon bere ganoraz bizia zuzendu ta edertzen saiatu da.

Begira mendi gain pilitera. Aldatzak zugatz orlegiz jantzita

dagoz ta gaiñean lau aide eder bat solo mamintsuz landuta ta danen artean etxe zuri eder bat lau aritz aundiren erdian. Lau aizetara daukaz bere sustraiak sendo ta ugariak Euskalerra osora begira. Danentzat dauka bere onginaia, danentzat bere agurra goizean goiz askatasun eguzkia sortzen danean.

Gizona egarri da ta iturri bat dauka etxe zuriak aurrean giza-giroa asetzeko... gizona etxe lurreko ur garbia edanda suspertzen da lanerako gogorik bizienez. Baiña lurak landukeran, beste egarri bat asmetan dau bere barnean. Iturri ondolik, agiri-agirian, dauka Euskalerra guztia ta biotzak asmetan dautso aren egarria. Ain eder ta maitagarri zara nire sorteri maitea diño... asetu egizu nire zuregana-ko lei bizia...

Izan bere, bizi-itunirik ederrena norbere sort-iturria da ta aren egia ta maitasuna arnasa sendo emoillea. Zerua aparte, itunirik edentzat dauka egizko maitale kutuna da bere kabia.

Etxe txikitxu zuri politak zaindari bat dauka atean. "Txolin" txakur zuria, beti ernai dago mendietara begira. Ondo zaintzen ten ditu ikasgiñak, eiztariak ta gabaz bideak galdurik dabilzan sorgiñak; ez dau ezertxo be salatu barik izten. Ta ortik sortzen da egizko bake-aroa, maitasuna darion egoitza, poza ta mendigain ederrak darion bakea.

Ta etxe-jauna agertu da anats-beran etxe aurrera ta ederren edere-z reez biotza pozturik, izadiari jalki dautso abestirik gozoena. "Etxe txikitxu zuri polit bat lau aitz aundiren erdian, iturritxo bat aurrean txakur zuri bat atean, antxe bizi naz bakean". Au izan da euskaldunaren ametsa, egia ta poza lau aitz aundiren erdian.

Euskalerriko mendi gaiñean zer dago zerura adi zugatz sendoak dirdari dagoz eskur-miñez zeruari; danen artean ederrena zein dan barruak ezin igarri, ain zara eder, izadi maite, eskerrak Egilleari.

Zelai orleian piztiak dabilz era ezbarðiñekoak aundi ta txiki, zuri ta baltzak bakoitza bere erakoak; auntz ta akerrak adar okerrak bedar gozoz asetsuak asto eder ta zaldi liraiñak pizti berebizikoak.

Danen artean ederren dira, eguzkiaren argitan, bei zuri eta odol gorriak, bedartza orlegietan; goizean goizik gogoz dabilzaz euren janari lanetan esne zuriaz betetuteko ontzi gorriak gabetan.

Oroz goitikan ara zer dagon lau aitz aundiren erdian, etxe zuria leio zabalik eguzkiaren aurrean; txoriak egaz, erleak dardar aritz ederren artian, zoragarria egiz dalarik bizia mendi gaiñian.

Giza biziak bear dabena dauka etxeak oiñean iturritxo dizdikaria arri zurien artean; egazlariak datoz bertara urez asetzen aidean ur garbiaren atsegiñagaz indartzen bizitz-barnean.

Etxe zuriak eskatuten dau berarentzat aiskidia bakardadeko ordu luziak alaituteko bidia; bideak gora, arkaitzak bera alaitsu dabil jendia danen omenez txakur zuriak zaunkaz dabil min gorria.

PAULIN



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA' ren ize-na ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2², eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

RESURRECCION MARIA AZKUE (1864-1951)

Kantauri itxas-ertzean dagon Lekeitio arri politean jaioa dogu.

Eusebio Maria, bere aita, lekeitiarra zan eta euskal olerkaria. Mundaka'koa eban ama, Karmen Aberasturi, euskal lanetan semeari ainbat lagundu eutsuna. Gaztetatik susmatu eban eleiz-deieri erantzunik. Gazteizen eta Salamanka'n osotu ebazan ikasketak. 1888'an abestu eban bere meza barria, andik iru urtera, teologian ain zuzen, "Irakasle" (Doctor) agiria lortu eban.

Azkuek oroimen arrigarria eban eta naimen oso sendoa, lan-gille **porrokatua** zan, euskal arloan batez be. Bilbo'n, Jardines kalean eukan euskerazko eskola, eta emendik, ezin esan ala lan; burutu euskun. Berton eukan antzoki bat umetxoei "teatrua" erakusteko; emen eukazan Euskaltzale ta Ibaizabal asterokoen lantokiak be. Eta Azkue izan zan, Arana Goiri'rekin batera, bere garaian euskera illobitik atera ebana.

Irutan benatu geinke Azkue'ren lana 1) Euskalari; 2) musikari, ta 3) idazle.

Azkue, euskalari

Euskalari ta gramatikari bezela lan izugarria egin eban Azkue zanak. Ez yaku errez izango euskaldunoi aren goi-maillako lanari merezi dauan garrantzia ezartea.

1) Euskal Izkindea (Bilbao, 1891). 401 orrialde. Euskeraz ta erderazko gramatika. Bizkai'ko Aldundiak argitaratu eban.

2) El Euskera (Bilbao, 1897). Euskera ikasteko.

3) Diccionario vasco-español-francés (Tours, 1905-1906). Ale bi; lenengoak 561 orrialde ta 487 bigarrenak. Lan eder-ederra; gaztetan egiña. Amabost urteko lana, berberak diñoskunez.

4) Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca (Bilbao, 1917). Euskeraz ikasteko lan bikaiña.

5) Diccionario de bolsillo (Bilbao, 1918). Liburutxo antzean argitaratua; euskeraz ta erderaz, eta **iruntzieta**.

6) Morfología vasca (Bilbao, 1923). 930 orrialde. Ikasbide egokia, euskera sakon-sakon ikasteko ta berbetean erabili oi doguzan utsak eta okerrak zuzentzeko.

7) Gipuzkera osotua (Bermeo, 1935). 184 orrialde. Morfología osotzeko egin eban lana, elburu bati begira: **euskalkien batasuna**.

Garbi-zalea zan Azkue, idazti oneitatik atera geinkenez.

Azkue, musikari

Asko atsegin yakon Azkue'ri euskal-musika. Zenbat euskal eresi zar batu **eban!**

Eta kanta zarrok txortatzea besterik egin ezpa-leu be, ondo irabazia eban betiko izena. Ona amen lan batzuk.

1) Euskerazko eresiak. Lau musika ingurrazti.

2) Eleizarako eresiak. Sei kuadernu eleiz musikaz.

3) **Eres-antzerki edo zarzuelak:** a) Vizcaytik Bizkaiara; b) Sasi-eskola; d) Aitaren bildur; e) Gainzabale'ko eiztaria; f) Eguzkia nora, eta abar.

4) Iru oratorio: Daniel, Lamindano ta Andra Urraka.

5) Ortzuri (Bilbao, 1909). Opera, iru zatitan eratua, euskeraz eta erderaz. 1911'an aukeztu zan Itxasora deritzan zatia.

6) Urlo (Bilbao, 1911). 348 orrialdea ditu partitureak. Opera. Musika ta izkia euskeraz, gaztelaraz eta doitxeraz bereak ditu.

7) Cancionero vasco popular (Barzelona, 1918). 12 ale. Lan izugarria benetan.

Azkue, idazle

Euskal idazle dogu Azkue, eta bitxi batzaille era berean. Gramatika, antzerki, itzaldi ta musikaz gaiñera, ba ditu irakurgai ta nobela jatorrak be. Berak asmauak batzuk, eta erriaren agotik jasok beste batzuk. Ikus:

1) Txirristadak (Bilbao, 1898) 274 orrialde, irakurkizun barregarriak dozuz, piper-miñez beterik egiñak.

2) Bein da betiko (Bilbao, 1890). 138 orrialde.

3) Jesusen Biotzaran Illa (Bilbao, 1901) 210 orrialde. Bizkaiko euskeraz.

4) **Ardi galdua**, (Bilbao, 1918). Gipuzkeraz egindako nobela.

5) Laminak: Euskalerrian (Bilbao, 1927).

7) Euskalerrian Yakintza (Madrid, 1935). Lau liburu andi. Lan ederra. Euskalerriko oitura, siñiskeri, ipuin, esakera, erri-olerki, aur-jolas, sandakintza, kanta zar, millaka gauza eder batu euskuzan.

8) Ipuñak (Bilbao, 1968). 248 orrialde. Azkue'k gaztetan osoturiko ipuñakaz.

ARREGI'tar JOSU

BAKIOKO EUSKERA (eta III)

4. Izkuntza erabilerako beste erispide batzuk

4.1. Eraikuntzen izenak

Arlo au be egonkortzat jo bear geunke. Bakioko udalerrian edozein etxe edo eraikuntza eregiterakoan Udalak baimena emon bear izaten dau. Udalak baimen ori baieztatuteko, eregileak, Udalak eskatutako baldintzaren batzuk bete bear izango dauz.

Ez daigun aaztu, emen azaldu gura doguna elburu jakina lortutekotan eginda dagoana, arean da, inguru etnolinguistiko jakin bategaz, Bakioko izkuntza ereduagaz (Balioko euskera aldaereagaz), atan be, bat egitea dana. Beraz, esku artean darabilgun izkuntza ingurune ori jagotekotan, etxe edota eraikuntza barriak egin eta beroneek izendatuterakoan, urrengo baldintzok bete eragin bearke leukez Udalak:

– Etxe edo eraikuntzearen izena euskeraz imini bear da. (EL MANZANAL - SAGARLANDA/SAGARDI)

– Orretarako, aal danean tokian-tokiko lekuizena erabili bear da. Orube edo inguruari jagokona aal bada, obeto. Erriko toponimiari leentasuna emon eta toponimia bera jagon guran. Udalaren arlo onetako aolkuak bear-bearrezkoak izango dira (ARBEBURU, GURBIZONDO, BASARTETXU, MIMENARTE, MIMENONDO...).

– Zuzentasuna eta jatortasuna erabili bear dira euskera bera eta euskerazko izenak erabilterakoan. Bakioko euskereari leentasuna emon, ingurune etnolinguistikoari jagokozan izkuntza ezaugarriakaz bat eginez (BERRI - BARRI, IRI -- URI, BELTZ --> BALTZ, -TXO - TXU, GAIN -* GANE/GAN, BARNE – BARREN, ELIZ -* ELEIZ, -TEGI -* - TOKI, -AGA/-TZA/-ETA,...).

– Etxe edota eraikuntza orretarako aukeratutako izena kanpoko ormetan ikusteko eran jarriko da.

– Etxeko edota eraikuntza orretako seinalaen osoa, iragarki eta erakusle guztiak, euskeraz, gitxienez, jarri bearke dabez.

– Bakioko etxe istorikoen euskal izenak birreskurratu bear doguz. Arean da, baserri eta uriguneko etxeon izenak. Izenok etxe orreen aurrekaldeetan argi eta garbi jarri bear dira. Era txukunean eta era bar-

dintsuan, bateratasuna eta garbitasuna erakutsi bear dogu arlo onetan eta. Orretarako Udalak diru-laguntzak aurreikusi leikez, etxeetako jaubeek izenok euskeraz ormetan imini daiezan. (Eraikuntza edota etxe istorikotzat 1950tik atzerakoan egindakoak artuko doguz - GOIKOLEA, IBARRA, GOITISOLO, ARMURUA, GAUBEKA,...

– Au guzti au bete daien Udalak bear diran arauak eta betebearrekoak onartuko dauz eta orreei jagoken urreko jarraipena be egingo dau. Bakioko jaube guztiei onartutakoaren barri emongo deutse Udalak, era berean, arautara egokituteko dabezan epeak jakinazoko deutsezala.

4.2. Kale, ibilbide, zumardi, bide, etorbide, enparantza, mailadi, iturri eta abarren izenak

Arlo au be egonkortzat jo bear dogu. Bakioko udalerrian badago, oraindinokarren, arlo onetan zereginik. Batez be, geienak izendatu barik dagozalako. Arlo onetan inoren minberatasunari ez erasotekotan, alderdikeriak dirala eta, aren edo bestearenganako bazterkeriak saiestuteko asmotan, zuur eta garbi jokatut bear da. Beraz, Udalaren aukerak erdibidekoa eta neutroa izan bear dau. Eta onetarako zer obeto, erriko ingurune etnolinguistikoak eta gomutapen istorikoak eskeinduten deuskuen toponimia aberats eta aberasgarriaz baliatu baino: Eta au berau izango da gure aukerea:

– Kaleak-eta izendatuteko izenak Bakioko lekuizenen zerrendatik aukeratuko dira. Au da, Bakioko toponimia izendegitik. Erriko jatorrizko izkuntzea gordeteko, gizaldi eta milurte askodun izkuntza ondareari eusteko, atan be. (IBARRA, TABERNAZAR, BIOZKO, GABANTXO, ORUEZARRETA, ZAITUA-ETXEBARRIA, ARTAETXE, OLEA, MUXIKENA, OTSOATEGI...)

– Kaleak-eta izendatuteko erabiliko diran erriko lekuizenak aukeratutakoan, kale edota zer ori dagoan lekuari jagokon lekuizena artuko da, edota ango baserri edota ondo-ondotxuan legoken beste edozein gai toponimikoari jagokona (solo, iturri, bide, baso,... toki batena). Beti tokian-tokiko izenan eusteko asmotan. (OLASKOETXEKO APARKA-

LEKUA, ONDARREKO ZUBIA, MAKATZEKO ITURRIA,...).

– Kaleak-eta izendatutako beste aukera bat tokian-tokiko izen deskriptiboak erabiltea da (KALE NAGUSIA, ERDIKOKALEA, ARTEKALEA, BARRENKALEA, GOIKOKALEA, BEEKOKALEA, BARRENKALE BARRENA, BARRENKALE GOIENA, GOIKO/BEEKO ELEIZEA, ITSABIDEA,...). Erabiliko diran deiturek Bakioko euskera eredu eta euskal senari jarraitu bear deutsee.

– Pertsonen eta pertsonen egindako ekintzen gomutagarri diran izenak leku-gai orreek izendatutako erabilera oso-osoan saiestuko da. Daborduko ildo orretan iminita dagozanak bear dan eran ordezkatzuko dira. Beste errialdeetako izenei be, ildo berean, gatxeritxiko deutsegu. Seinalapen politika ori errotik baztertu bear dogu. (J. M. ZIRARDA GOTZAINAREN KALEA,...).

– Gai bakotxa zer dan adieraztekoa, deiturea (KALEA, IBILBIDEA, ENPARANTZEA,...), euskeraz bakarrik idatziko da. Euskerearen izkuntza legeak eskatuten dauanez, lekuizenaren ondotik eta artikulua daroala idatzi bearo da (LAPIKOLURRA MAILAK, BENTA ENPARANTZEA).

– Beroneen seinalapena era egonkorrean egingo da, au da, denporan luzaroan iraun aal izan daian. Erabileren turistiko-folklorikoa asikera-asikeratik eta errotik ezabatuko dogu.

– Aurreko guztia zeatz-meatz bete daiten, Udalak bearrezkoak diran arauak onartu eta ezarriko dauz.

4.3. Barruko seinalakuntzea edo errotulaketea

Eraikuntza publiko eta pribatuetako barruko seinalapenari gagokioz emen. Berau be arlo egonkortzat artu bear dogu. Erakusleak eta errotuluak euskeraz idatzita egotea da elburua. Ekintza oneri Udalaren bitartez bidea emon bear jako (itzarmenak izenpetuz,...). Udalak bideratu, eskatu eta, bearrezkoa bada be, erabiltera beartu egin bearo leuke. Au dala eta, aaztu barik, Bakioko giza-talde linguistikoari jagokozan begirune eta eskubideak. Orra or Udalaren zeregin aundi-sakona!

Ba dira or, bada: udaletxea, kultura etxea, ikastetxea, ur-araztegia, osasunbide zerbitzuak, gizarte zerbitzuak, kiroldegia, probalekua, kirolgunea, aparkalekuak, aritzea, baso-mendiko ibilbideak, eleizak, baseleizak, gasolindegia, saltokiak (salgaiak, salneurriak, iragarkiak, oarrak, publizitatea,...), tabernak, jate-

txeak, hotelak, diruetxeak, osagaidendea, aseguru etxeak, oilotegiak, bestelako baltzuak, eta abar. Bada-go, bada, non zer eginik, gero!

Udalak ekintza orreen ontasuna bermatuko dauan itzulpen zerbitzua erabilteko aukerak danon eskueran imini bearo leukez. (LABAYRU IKASTEGIA,...).

Kanpaina bat edo batzuk eraturerak, ekintza onek bultzatu bearo leukez Udalak, orretarako, euskeraz errotuluak iminten dabezanentzako ainbesteko dirulaguntzak eskeiniz. Baita errotulaketa elebiduna imini ezkerro be.

(Oneri gagokozan ezkerro, barruko errotulaketea ezeze, kanpoko be diruz bultzatu bearo litzake. Egitasmo au aurrera atarateko Eusko Jaurlaritza, Aldundia, Bizkaiko Merkataritza eta Itsas Etxea eta beste erakunde batzuegana laguntza eske jo bearo litzake).

Barru seinalapenak, bera irakurriko dauan edonorentzako, arlik eta euskera ulergarrien, erabilgarrien eta arlo bakotxaren zeatzasunei egokien erantzungo deusela eginda egon bear dau. Barruko errotulaketea erabagiteko erispide orokorrakak, beraz:

- 1.– Ulergarritasuna.
- 2.– Zeatzasuna/argitasuna.
- 3.– Zuzentasuna (okerrik ez).
- 4.– Praktikotasuna.

Beste aldetik eta izkuntza arloa gogotan artuta, ona emen olangoetan orreri buruz emoten diran aolkuak:

– Euskera zeatza eta ulergarria.

– Erderazko emoitzei ez lotutako aaleginak egin bear dira:

a.– erderazko izenaren ordezkaditza euskeraz erabili.

b.– erderazko izen-multzokariak euskeraz pluralen erabili.

– Izenlagunetan **-en / -ko / rako** atzizkiak erabili.

– Erderazko **"izena + izenorde erlazionala"** erako multzoak euskeraz geien bat izen alkartuen bidez emon.

– Erderaz izenondo bi dagozanean, izenondo erlazionala erabili, edota izenondo onek izen alkartuak jasoko ez leuken esangura berezia daukanean.

– Berba alkartuetan, errotulaketarako marrarik ez erabili. Alan idatzi bearra araututa dagoanenan izan ezik.

– Berba alkartuetan/errotrietan leen osagaiaren -a itsatsia jagon, **-ia** amaieradunetan izan ezik (oneetan -a kenduta erabilten dira eta).

EUSKEREAA

- Izkuntza arau eta abarrei jarraitu (izki aundiak/txikiak...).
- Espaineratik bereizteko bearrizana dala, maileguak artuterakoan kontuz ibili bear dogu (zein, noiz, zelan, non), errotulaketarako berbak aukeratutera-koan, ain zuzen be.

4.4. Publizitatea

Publizitatea, kanpoko zein barrukoa, gaur egun edozein lekutan aurkitu geinken gaia dogu. Publizitate-terik euskeraz, baina, ia-ia ez dago, ez dogu inon be ikusten. Dagoana, eta ez gitxi, erderaz dago. Esango geunke euskeraz baino ingelera idatzitako publizitatea geiago ikusi leitekela gure errian.

Kanpoko publizitateari jagokonez, gure bide-bazterretan, kaleetan, pelota-lekuan, futbol-zelaian, saltokietan, publizitaterako tauletan eta olango agiriko leketan publizitatea euskeraz imini eragitea lortu bear dogu. Gure erriaren izkuntza eta nortasunari jagokelako. Olan egin ezean, begien aurreko izkuntza ingurunea jagoteko egingo diran beste aaleginak eznaiko eta erren lotuko dira. Udallerri mailan orokor eta osotasunera jo bear dogu arlo onetan.

Barruko publizitatea, saltoki (erosketa-zorroak, lotukiak egiteko paperak, iragarkiak,...), taberna, ja-txetxe, diru-etxe, baltzu, gasolindegi eta abarretan jar-ten da. Emen be euskerea bakarrik erabili bear da.

Gitxienez, erriko publizitatearen %80a euskera utsean imintera jo bear dogu epe laburrean.

Enparaukoak (%20ak), baina, elebiduna izan bear dau. Euskereari, jakina, zein lekuz zein andieraz, leen-tasuna emonez. Publizitatea jarteko baimena emotera-koan, Udalak eskatu bearko leuken gauzea dogu be-
berau.

Euskerea, publizitatean, ganoraz, taiuz, bizitasunez eta ondo erabili bear dogu. Euskal senaz eгина eta ez erderen kalko txarren emoitzea. Ez daitela urtenbide-rik merkeena izan, onena baino. Euskal izkuntzeari onurari aundiena ekarriko deutsona, atan be.

Udalak bultzatu bearko leuke publizitatea euskeraz bakarrik egin daien. Eta errian edo udalerrian eratuko dan edozein ekintza sozial, politiko edota kulturala egiteko baimena emotearakoan, orretarako eskatu bearko daben baimena Udalak emon baino leen, publizitate guztia (afitxak, ormirudiak, txartelak, jaie-tako edo eskuko egitarauak, gida-liburuak, iragarkiak, oarrak, aldizkariak,...) eskeraz egin daiezala eskatu edo beartu bearko leuke Udalak. Edo, gitxienez,

aurrean esan dogun lez, elebitan, euskereari beti leen-tasun osoa emonez.

Publizitatea euskeraz sustatu eta garatuteko kanpai-nak egin bear dira, ekimen pribatua euskerearen eteki-naz be oartu daiten. Au guzti au administrazionaren (Udalaren) laguntza barik ezinezkoa litzake.

5. Borondate politikoa

Onelango ekintzaren bat aurrera ataraterakoan, borondate politiko argia eta sendoa izatea bearrezkoa da.

Udalak euskerearen normalkuntzan dauan garrantzi berezia azpimarratutegoa da. Gizarteari begira euske-rearen zabalpen lana egin bear dau. Euskerearen nor-malkuntza bidean gitxienekoak bete bear dira. Badaez-padako urtenbideek euskereari ez dakartsoe gauza onik, erabagi sendoak eta iraunkorrak bear doguz.

Udalaren borondate politikoan datza, bada, egitas-moaren arrakasta ala porrotea. Leentasunezko arloa dan euskerearen normalkuntzeari arek bear dauazan besteko baliabide ekonomiko zein politiko eskuetan imintean, atan be. Borondate politiko orrek zabaltasu-nean oinarria izan bear dau. Bideratuko diran ekime-nak, bada, Udalaren onarpen eta sustapen politiko sendoa bear dabez. Arlo onetan alderdi politikoen bategite politikoa bearrezkoa dogu egitasmo au egia biurtuterakoan.

6. Diru-baliabideak

Euskerearen normalkuntzearen barruan kokatuta dagoan ekintza au garrantzizkoa dan ezkeru, Udalaren bitartez diru-baliabideak aurreikusi eta bilatu bear dira. Diru-baliabiderik ezean, egingo dan aalegina utsean lotuko da eta. Urtean-urteango aurrekontu berezia egin bearko da. Diru-iturriak urrengo oneek izan leitekez:

- Udala.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Eusko Jaurlaritza. (HPIN).
- Europako erakundeak*.
- Komertzioak.
- Partikularrak (emotzak).

* (Izkuntza gitxituen aldeko egitasmoetarako laguntzak).

Plangintza eta ekintza orrek aurrera atarateko bearezkoa da aurrekontua eta dirubideak zeaztea. Geiengienek diru publikotik etorri bearko leukee. Gauzak leenengotan ondo egin ezkeron, dirutzak aurreztu leitekez, geroan dirutzok beste arlo batzuetan erabili aal izateko, ain zuzen be.

7. Epeak

Egitasmoa zertuteko epeak arloka erabagi bear dira. Epe edo fase ezbardinak asmatu eta beroneek eukiko daben eragina eta zabalerea be zeaztu bear dira: arloka, auzoka...

Ekintza guztiak batera egitea ezinezkoa bada, diru-aurrekontuak dirala eta, leentasunezko arloak eta epeak zeaztu bear dira. Epeak bete aalean, arloek gero eta geiago irabaziz. Ekintzok, epeei jagokenez beraz, onetara sailkatu leitekez:

- Epe laburrekoak.
- Ertaineko epekoak.
- Epe luzeagokoak.

Elburu mailakatuak apurka-apurka areagotu bear dira. Elburuak, epeak, plangintzea eta egitasmoa aztertu, ondu eta atzera aztertu bear dira, arik eta beinbetiko erabagiak artu arte. Gero, beroreek indarrean imintea baino ez dago.

8. Jarraipen Batzordea

Onartu eta agirian iminiko dan seinalakuntzea kontrolatuteko Jarraipen Batzordea eratu bear da. Zer esanik ez, orretan Udalak gidaritzea eroan bear dau. Orra or be, beste aldetik, Bakioko Euskera Batzordeak egin leiken bear polit eta interesgarria. Dalako Jarraipen Batzorde orren betekizunik garrantzitsuenak:

- Seinalakuntza erispide eta arauak sortutea.
- Neurrien ezarpena egiterakoan erabilitako politika zuzena/okerra aztertutea.
- Plangintzearen alde onak/txarrak aztertutea.
- Plangintzearen ezarpen epeak erabagi eta beroneen jarraipen zeatza egitea.
- Euskaldundu barik, egoki ez edo txarto dagoana salatutea.
- Lorpenak, urritasunak, uts eginak aztertu eta neurtutea.

– Eraginkortasuna eta aldian iraunkortasuna bermatu eta ziurtatutea.

- Laguntzak eta oztupoak aztertutea.
- Aolkularitzearena egitea.
- Udalagaz indarrak eta aaleginak bateratutea.
- Egindakoaren aldiroko birrikuspina egitea, eratu-tako neurri eta asmoak erritarrengan zelango eragina izan daben jakiteko.

Emoitzen eta ekintzen balorapena egiteak bere garrantzia dauka, bidean noraino eta zelan goazan jakiteko, ain zuzen.

9. Ekimen pribatua

Jaubedun diran etxe edo bestelango eraikuntzetarako euskal izendapena eta seinalakuntzea bultzatu bear doguz. Bultzatu egin, Udalaren aldetik bultzatu be, diruz zein laguntza politikoz. Izan be, euskerearen aldeko ekimen pribatuak euskerearen egoerea asko be asko obetu leike. Erritarrengandiko euskerea birreskuratuteko aalegina zeozelan sariztatu bearko leuke Udalak. Erritarrek arlo onetan esku artutea garrantzitsua da. Euskerearen birreskurapen eta begirunezko erabilereari bear dan lezko erantzuna emon bear jako.

10. Egitasmoaren zabalkundea

Erriari egitasmoaren barri emoteko Udalak era txukunean egindako (argazkiak, argibideak) irarki bereziak zabaldu bearko leukez erritarren zein erbestekoen (udatiarrak) artean. Erriko lekuizenen izendegia osotu eta merke-merke salgai ipini edota doan eskura emoteko aalegina egin bearko litzake.

Erritarrek, artuko diran neurrien aide egin eta esku artu daien dei eginez, egin diran eta egingo diran ekintzen jakitun imini bear dira, arik eta azalpenik geien emonez. Garrantzi aundidun egitasmo onen barri erritarrei emoteak norberak uste leiken baino garrantzi aundiagoa dau.

Erritarren eritxiak, burubideak eta asmoak jasotea garrantzizkoa da, egitasmoari geitu leikioen guztia osogarri eta betegarria da eta.

11. Beste egitasmo antzekoen barri

Eginbide onetan goi erakunde zein be erakun-

EUSKERA

deen aldetik artutako neurriak eta egindako urratsen barri batutea dau elburu. Begien aurreko izkuntza inguruneko euskerearen normalkuntzan bearren inguruan dabilzan erakunde ezbardinek (Aldundiak, Udalak, EUDEL, UEMA, HPI, EKB, HAEE,...) bultzatu, sortu edo burututen dabezan ekintzen, ekimen eta jardunei buruzko argibideak jaso bear doguz.

12. Elebitasunaren erabilerea

Izan be, arlo au izkuntza politikearen erispidei jagokezan ataletariko bat dogu. Eta ez edozelangoa, gero! Elebitasunaren ezarpena ez da beti euskerearen mesederako izaten eta Elebitasuna kaltegarria da euskerearentzako, gaur eguneko egoera diglosiko sakonaren ikuspegitik begiratu ezkeran, beintzat. Alan da ze, elebitasunaren ezarpena kontu aundiz egin bearko dogu. Euskerearen garapena eta normalkuntzea bultzatuteko asmoz, eta euskerea gure nortasunaren erakusgarri nabariena eta beinena dalako, euskereak leentasunezko abegia izango dau.

Sainalakuntzan aal danik eta erabilera bakarra egin bear dogu, euskerazkoa jakina. Egundo be ez erabilera elebiduna (KARAB IA/EL CALERO - KARBIA, GOITISOLO ALDE/BARRIO - EL BARRIO DE GOITISOLOALDE -- GOITISOLO ALDE, UDALETXEA/AYUNTAMIENTO - * UDALETXEA), gure kalterako joko dau orrek eta. Beraz, errotulaketea euskeraz bakarrik egitera joko dogu, elebitasunik ez, euskerazko elebarkardun eredurari bidea zabal-zabal eginez. Alan bada, iturriak, bideak, aldeak, etxeak, errekak, basoak, mailak-eta, gaiak izendatuterakoan, lekuizenagaz batera gaiaren mugaketea euskeraz bakarrik egingo da. Osterantzean, kasu onetan elebitasunak erderearen aide jokatu oi dualako, euskerazko lekuizena eta gaia lexikalizatuz (EL BARRIO DE GOITISOLOALDE) eta euskerea bigarren mailako eginez, euskerea erderearen morroi lotuko da, azken baten.

Euskal izenak euskeraz bakarrik iminiko dira. Euskal izenak bietara imintea jokera **barregarria** da euskerearentzako eta (BILBO/BILBAO - * BILBO). Toponimiaren alorrean elebitasuna gaintu eta euskerea oso-osoan normaldu bear da.

Euskerazko lekuizen bi edo geiago gai baterako balegoz, aukeraketea egingo da erabilera bakarra but-

tzatuteko edota bat baino izen geiago gorde gura bada (izen bi geienez), aldaerak alkarren ondoan emongo dira egokienari leentasuna emonez. Arriskua dago, ori gorabeera, aurrerantzean tokia izen alkartu batez (lexikalizazioa) ezagututeko (ORUEZARRETA/URIZARRETA), toki bereko aldaera ezbardin bi diranean eta ez deitura bakarra.

Bada, ekimen publiko guztiak elebakarrak, euskerazkoak, izango dira (trafikoko bide-erakusleak eta erriko seinalakuntza osoa).

Ekimen pribatuak egindakoak euskerazkoak, gixienez, izango dira. Bear-bearrezkoetan, bakarrik, erabiliko da elebitasuna. Elebitan datozenetan, euskerari leentasuna emongo deutsoe, arean da, bai idazkera, bai lekuaren aldetik ikusita. Euskereak izki aundiagoak eta ikusgarriagoak, baltzagoak, izango dauz. Goitik asita euskerazko testua leenago joango da eta ezkerretik asita be bai. Beraz, euskerari leentasuna emongo deutson erabilerea erabiltera beartuta egongo da ekimen pribatua (dendak, tabernak, baltzuak, jau-beak...).

Alan da guztiz be, ekimen pribatuak euskerea bakarrik erabili daian bultzatu bear dau Udalak, karpaina eta itzarmen berezien bitartez. Alan bada, euskera utsean edota euskerearen aldeko postura sendoa artuko dabenen aaleginak sariztatuko dauz Udalak (publizitate berezia erriko aldizkarietan...).

Emen be, epekako elebitasunaren bidetik joan leiteke. Euskerazko elebakarrerako bidean, gero eta elebidun testu gitxiago egitera joko dogu. Gure erri euskaldunak be elebakarrez dagozan euskerazko adierazpenak ikusten oitu bear dau eta.

Iniaki MARTIARTU
1997ko jorrailean



ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN'I

Lagun Augustiñ zugana nator
 Zabalduz neure kantua,
 euskerarentzat bizi zarela
 Ez da atzoko kontua.
 Zeure bizitzan sendia azten
 Egonarren lanpetua;
 Ia larrutsik zegon izkuntza
 Utzi dezu lumatua.
 Orretarako izan bai ziñan
 Jainkoak aukeratua.

II

Berdin gabeko euskal langille
 Idazle amorratua,
 Etzera izan asko bezala
 Bear aiña goratua;
 Erri izkuntzan lan egitea,
 Ori al da pekatua?
 Bizkai aldean zure euskera
 Askok dute maitatua,
 Denpora joan da izango zara
 Geiago gogoratua.

III

Orain Irurogei ta bat urte
 Egin zizuten omena,
 Ta oraingoa ez nuke esango
 Izango danik azkena.
 Ondo dakigu buru-belarri
 Beti lanean zaudena;
 Etzaizu falta gogorik eta
 Sendo da zure almena,
 Txomin Agirre joan geroztik
 Zu zara emen onena!

IV

Garai batian Txomin Agirren
 Izenak ba-zuan otsa,
 Bere izkerak makiña bati
 Samurtu ziion biotza.
 Euskalerrian bizirik dago
 Oraindik bere oroitzia;
 Bera izan zen gure maixu-ta
 Berari diogu lotsa,
 Orain ordea zeuk artu dezu
 Txomiñ'en oiñordekotza.

V

Egunez asko ez balitz ere
 Gauero zagoz lanean,
 Argi txiki bat ortxe daukazu
 Idazgelan mai-gaiñean.
 Etxeko danak oeratuta
 Zuk ekin zeure bidean,
 Zalantzan nago lorik egiten
 Ote dezun zuk oiean,
 Utsaren truke zenbat lan egin
 Dezu zuk bakartadean!

VI

Eleberriak, Izparrangiak,
 Beti zagoz lanpetuta!
 Ta guzti oiek egiten dezuz
 Euskeran oiñarrituta.
 Euskeran oiñarrituta.
 Izkuntza eta Aberri miña
 Beti gogoan artuta,
 Bi gauza oiek dituzu zeure
 Biotz barruan sartuta,
 Esango nuke gaur bertatikan
 Zaudela illezkortuta.

VII

Kezkati nago nolako euskera
 Egingo dan Ondarroan,
 Edozergatik gure Augustiñ
 Faltatzen zaigun orduan.
 Lengo euskera ederrik ez det
 Entzuten gaur inguruan;
 Belarrietan min izaten det
 Jarriz askoren alboan,
 Ondoarroa'ko zarren euskera
 Ez dakit nik nun dagoan.

VIII

Erri euskera ibilli arren
 Beti arazo danetan,
 Ulert-eziñik ez degu iñoiz
 Aurkitzen zure lanetan.
 Artu zenduan bidea zuzen
 Daramazu urteetan,
 Aldakuntzarik ez da nabari
 Zure eginkizunetan,
 Euskera ori maite degunok
 Zurekin gagoz zorretan.

IX

Batzun jokera artu ba-zendu
 Birtuko ziñan mito,
 Zure izena an eta emen
 Goratuko zan polito.
 Baiña orduan erri euskera
 Egingo zenduan ito;
 Besterik gabe batua egin
 Bear gendula ta kito!
 Ori ez al da Urretxindorra
 Biurtzea Perikito?

X

Aspaldi kendu genduzan gure
 Begietako bekarrak,
 Eta geroztik izan ditugu
 Samiñak eta negarrak.
 Augustin maite, zu bezalako
 Gizonak dira bakarrak;
 Ondo iflausi ta mendau dezuz
 Erri euskeran adarrak,
 Orregatikan artu ezazuz
 Biotzez neure eskerrak.

Azpiri'tar Jose Mari
—IPARKALE—



EUSKERA ZABALTZEN

EUSKARAREN MUGA BERRIA

Euskal kulturaren giroa gaur ikusita, auxe esan bear: euskararen mugak lertzen daudela.

Ortxen dugu Errioxa'ko eredia. Gero ta geiago dabiltz euskal aztarnak astintzen: San Millan'go LIBURU ZARRAK direla, Gonzalo de Berzeo'ren olerkiak, lur-izenak eta abar. Dantzekin zer esanik ez. "Katxi" delako dantzaria, Ebro ibaian bi alderdietan arkitzen dugu.

Azkeneko berria galanta da. Errioxa'n ez dute bakarrrik euskal kultura aipatzen, orain Errioxa'ko gizaseme batzuek zutik jartzen ari dire, euskara ikasteko gogoia erakutsiz. Ikusi bear adibidez Kalagurria'ko GAZTE TALDE. Gertakizun oneri buruz bizpairu jokabide eman ditugu (Euskara ta Kalagorria (Calahorra), Diario de Navarra 1997-3-2).

Euskara serbitzua

Errioxa'k len euskal nortasuna Nafarroa'kin lotua zeukan. Orregatik uste genuen, berriz Errioxa'ri Nafarroa'k lagundu bear liokela bere euskal nortasuna pixten. Bidezkoa zeritzaidan. Pozgarrizko berri oneri buruz idazlan bat egin nuen eta idazlan ori besazpian artuta, Nafarroa'ko Jaurlaritzak Iruñan daukan "Euskara serbitzua" delako lantokira joan nintzan berria ematera ta Kalagurri'ko gaztetzat laguntza eske. Aukera ezin ohea Nafarroa'rentzat, Errioxa'rekin arremanetan izateko. Gau-eskoletako zuzendariaren atea jo nuen. Gogo on gutti azaldu zuen eta ezezkoa eman zidan, Nafarroa'k ezer gutti ikusi bear zula neraman Errioxa'ko ereduarekin. Entzuteko gogorik ere ez zula, oartu nintzen.

Zuzendariarekin mintatzeko aukera eskatu nion. Ezezkoa eman zidan, baita ateak itxi. Ikaragarritzko diruak kostatzen diren lantokiak, zertarako? Euskara, oien eskuetan ain garesti ateratzen dela, gutxienez ardu-ra azaldu. Aien aurrera joan bear, ateak sugur antzinean ixteko. Euskarari eragozpenak jartzeko ez daude ordainduak. Ez aztu, zergako diruarekin ordainduak daudela. Nun dago euskararen maitasuna?

Gazteiz'ko Jaurlaritzan: Josune Aristondo Akarregi

Bizpairu arte geroago, Gazteiz'ko Jaurlaritzan nengo. Josune Ariztondo Akarregi'k Xabier Aizpurua Telleria'k onartu ginduzten. Guretarak iru giñen: Augustin Zubikarai, J.M. Murua ta ni. Bi ordu iraun zuen gure elkarizketak. Buru-belarri zeuden guri entzuten. Gure gaietaz mintzatu giñen. Gero Errioxa'ko gazte-talde baten euskalzaletasuna agertu nien, batez ere euskararen irakasle baten bearra Kalagurria'n. Zutik jarrita, alaitasunez beterik erran zigun Josune Aristondo'k: Bidali ezaidazu neregana Kalagurri'ko gaztea eta nere gain artuta bidaliko diet euskarazko irakaslea".

"Euskarari laguntzearren, zernai egiten dugu", jarraitu zion. Josune Aristondo oartu zen euskara dela Euskalerriko ardatza ta Gazteiz'ko Jaurlaritzaren langille argia bezala zai zegoen nunai euskal gogoia zuzpertzeko. Orrelako arrera onarekin lasaitu giñan.

Ettxera iritxita, Luis Antoñana Lopez, Kalagurri'ko gazteari deitu nion, Gazteiz'ko berri pozgarria emanez. "Txundituta utzi nauzu, ori berri ona!": erran zidan. "Lizarra'ko Euskaltegiko Xabier Azanza'rekin arremanetan nabil... eskerrikasko", jarriatu zuen.

Zorionenz eta euskaldun ziñezkoei esker, euskararen muga berriak aurrera dijoaz...

LATXAGA



BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

BAKIOKO UDALEKO KULTURA BATZORDEARI

Udal txit agurgarri orreri!

Erriko jaiak dirala-eta Udal txit orrek kaleratutako agirian oinarrituz, Euskera Batzorde onek idazki onetan agertuten dauazan iruzkinak zuenganatu gura leukez.

Danok dakigun lez, udan gure erria beste toki batzuetatik etorritako udatiarrez beteten da. Gura ta gura ez, orrek erriko euskerearen erabileran bere oidalako eragina dauka euki. Eta ez aldekoa!

Zeozelan, ardura berori zuengan be egon egongo da. Ziur, bat gatozana esaterakoan, euskereak udan daukan baino leku andiagoa euki bear dauala. Gure uste apa-lean, arlo batzuk beren-beregiak dira euskerearen erabileran ekiteko, e.b.: **erriko jaiak**. Aukerea or dago, ba!

Alandaze, gurari onegaz batera, urrengo gaiak zeuen aurrera ekarri gura geunkez, eurok zuentzat artu eta jaiak eratuten eskuartuko dabenen artean zabaldu daitezuzan:

1.—Txoznak iminiko dabezanei edota jaien eraketetan ibiliko diranei Udalgaz eukiko dabezan artuemonak, "**artuemon administratiboak**" barru, EUSKERAZ egin daiezala eskatu.

2.—Txoznak edota jaiak Euskal Kulturearen aldeko

tresnak izan daitezcan, dekorazinoa, oarrak, zabalkun-dea, ekitaldiak eta argitalpen guztiak EUSKERAZ landu daiezala eskatu.

3.—Jaietako egitarauan Euskal Kulturearen egona ziurtatutako bitartekoak imini daiezala eskatu, e.b.: euskal izkuntzea, euskal musikea, euskal dantzak, euskal kirolak, euskal ekoizpenak,... Azken baten, erriko jaiak, euskal jai biurtutako asmotan, jakina, "**kultura artuemonak**" eta ekitaldiak EUSKERAZ bideratuz.

4.—Jaiak edota txoznak eratutearren, sortuko diran "**artuemon komertzialak**" EUSKERAZ egin daiezala eskatu. Moeta guztietako ornitzaileei euron ordain-agi-riak gure izkuntzan idatzita artu gura dabezala adierazo daiezala ekatu. Orrek euskerea arlo orretan sartutako aukerea zabalduko dau eta.

5.—Jaiak bai, baina EUSKERAZ. Jaietan euskerearen alde egindako bearrik onena ez da izaten "euskerearen eguna" eratutea, jaietako ekitaldiak gure izkuntzan egitea baino.

6.—Eta zelan ez, jaietan "**artuemon pertsonalak**" be gure izkuntzan egin daiguzala eskatu.

Bakioko Euskera Batzordea

Udatiarrak be bakio euskaldunaren aide 1997ko udan

Udal txito agurgarri orreri!

Udea izan da, geien baten, Bakiora ekarri gauzana. Bakiok —bere aretzea, mendi-ingurua eta giro osasuntsua dirala eta— erakarri gauz aspalditik, zelan edo alan, atsedan-aldi bila udak bertan emoten etortera. Udatiarrak gara izan, bada.

Gure aukeran, beste eragile batzuen artean, Bakio **erri euskalduna** izatea aintzakotzat artu genduan. Bakioko izkuntza ondare aberatsa gu eta gure seme-alaben onerako izango zalakoan edo. Udatiarrak bagara be, euskaldunak izan be bagara. Eta euskaldunak garan ezkerre, gure izkuntzeari zor jakon begirunea eskatuten dogu emengo onetan. Bakioko euskal nortasunak udatiarron geure norbanako euskal nortasuna sendotu bear deusku, sendotu be.

Ori guzti ori dala-eta, jarraian izenepetuten dogunok Udal txito agurgarri orreri zera eskatu gura geunskio: "Udal orrek aaleginik andiena egin daiala, Bakioko lurretan edozein unetan **EUSKERA** bultzatu eta berari leentasuna emoteko".

Alan egiten badozue, gure Erriaren geroak eskertuko deusku batzui eta besteei. Eskerrik asko.

**Udatiar talde euskalduna
1997ko bagilean**

AZOKAK LABORARIEN TOPAGUNEAK

Gure laboraria edo baserritarra berez oso peri-zalea degu, azokarako griña zañetan daramaki eta peri-eguna egokitzen danean, aal badu beintzat, ospatzen duten errira alderatuko da utsegin gabe eta buelta koxkor ba emango du ingurutik. // Nere iritziz merkatu egunak txit bereziak dira gure baserriko giz-emakumentzat. // Esaten oi duten bezela, beraientzako egunik obeenak iru dira: "ogia erretako eguna, txerria ildako astea eta ezkonduko urtea" eta nik zerrenda oni gañeratuko nioke iñungo beldurrik gabe "merkatu eguna" ezpairik gabe.

Izenburuan diodanez, peria iaten omen da baserritarren biltoki bat. Are eta geiago esango nuke nik, batez ere laborariena, baiña gaurko egunez kaletarrok galanki parte artzen degu ekintza oietan. // Gizarte elkartzeko oni dagokionez, aitatu gabe ezingo nun utzi: azoka baserritarren bizimoduaren atal garrantzitsu bat da. // "Abarkadunak" (ainbat bider baserritarra ez esateagatik) aprobetxatzen du beste etxeetako berriak jakiteko. Alkartu egingo zaigu bere moduko beste gizaseme edo emakumezko batekin eta jakabo!, solasaldi edo itz aspertu bat izango dute. // Etxeko kontu guztiak motza dala izketarako; Soroko emaitzak nolakoak izandu diran, ukulluko berriak, eta abar luxe bat, aitatu gabe ez tute aide egingo. Orrela alkarren berriak esateko aurrez-aurre bide

errea billatuko dute azoka egunetan. Abek egunkariaren bearrik ez tute.

Bestetik, baserritarrak perira beste asmoak eramango ditu etxeko jardueraren arabera: abelgintzatik ogibidea ateratzen baldin badu, orretara joko du beste bidetan galdu gabe, au da, abereak dauzkaten alderdira eta or baztar guztiak miatuko ditu bere gustoko edo premizko beia lortu arte. // Itzegingo du beia jabearekin, galdera egingo zizka ¡milla! nolako bei klase dan ikasi arte.

Peri-egun auetan beste gertakari eder bat gertatzen zan orain zearo galduta deguna: bertso saltzailearen agerpena bere bertso paperekin. // Kantatuko zitun oltza gañean jendeak aditu ziezaiola eta orrelako moduz gero saldu zitzan esandako bertso paperak. // Oietako bertso paper batekin agurtuko naiatzu irakurlea eta amaitutzat emango det gaurko lana. San Ferminetako perian gertatua dana oso egokia dala derizkiok:

"Iruñeko Ferietan,
iragana San Ferminetan,
eun zaldi arribatu
Andaluziatik tropan:
merkatu eder bat zeutan
zaudelarik bi lerrotan.

Joanes Otxalde (1814-1897)
JOXE IÑAXIO SALABERRIA

NEKEAK

Azpaldidanik begira nengoz
gizon jokabideari,
altsuak altsu, pobreak pobre
lur ez bardintasunari;
gizaldietan era orretan
ari dan gizarteari,
galdezka nago errai-karraziz
zer ari dan gizonari.

Nungo, norengo eskubideaz
pilla ditu onddusunak,
ugerrak lurrez jango deutzazan
metal aberastasunak;
bide ortatik agintzen eban
jankerizko altasunak,
bereak eginda nauskeri gisa
sortu ez bardintasunak.

Nekeak neke, samiñak samin,
gizona zuzperten doa,
injustiziko bide ortatik
askatu nai du gogo;
dei egin arren ez du nai entzun
zapaldu, arin, arroa,
mingarririkan ezer ba'dago.
au bai, zoritxarrekoa.

Urteak urte, goseak gose,
arroak ano bidea,
pobreak pobre, negarrez, sarri,
urdail samiñez betea;
palazioan jauntxoak dagoz
indarrez dau boterea,
pobreak barriz txabola zarra
bere bizitza-etxea.

PAULIN

ELIZ-GIZON BARROKOA

Idazlan onen izenburua beldurgarria da, bañan begiak irikitzen dizkigu ta gauzak diren bezala agertzen. Onekin laguntza ederra eskeintzen digu.

"Barrokoa" izena ederti lanen inguru ortatik datorkigu. Dauzkan berexitasunakatik ongi ezagutzen dugu. Zertaz ezagutzen dugu ba? Iduri "barrokoak" arro-arro eginak dirala dirudi; aizatuak, dantzan ibilliko ba lira bezala, besoak zabalik, aizeak daramazkitela.

"Banoko" irudiak elkar-izketan, oiuka ari direla ematen dute; "lenbaitlen goazen dantzara Maialen", esanez.

Irudi oietan nortasuak ongi aizatuak agertzen dire. Goitik bera begiratzen dute edo saieska. Itxura ongi zaintzen dabiltz beti. Zer ari dire oiuka, zerbait abesten ote? Agintaritzak ematen dien indarra aitortzen dabil-tza. Indar ori beren artean banatzen ari dire. Indarra ta orrexek ematen dien atsegiña nabaritzen da arpegietan.

Adiskideak zoriontasuna ortik xurpatzen dute. Aukeratuak, ongi agirian daude ezarriak, baita besteak. beste aldean zokoratuak; itzalean jarriak daude, beren aldetik itzala zabaldu dezaketanak.

Beti arkitzen ditugu begi aurrean elizgizon batzuek irudi oien antzekoak. Orregatik deitzen ditugu elizgizon "barrokoak".

Ze ezaugarriak daramazkite elizgizon "barrokoak"? Indarkeriaren zaletasuna elizgizon "barrokoaren" lenengo ezaugarria dugu. Goxoki bat izango ba litz bezala zaintzen dute agintaritzak.

Orregatik beren ota entzuten dute bakarrik eta beste-lako jokabideak eta iritziak dituztenak baztertuak izaten

dire, era bat zokoratuak. Begitartetik ez dituzte galtzen uzten orrelako lankide zallak.

Norberak bere asnio berexiak lantzea ez dute maite. Maila berdin oietan sartzen ez diren guztiak zokoratzen alegintzen dire. Agintaritzak danetz gain ikusten dute, baita beren iritxiak dituztenak etsaitzat artuak daude. Egiztako txikiratzalleak biurtuko dire. Danetan eskua jarri-bearra.

Mamiaren aldetik, barrena utsa daukate, irudi "barrokoen" antzera. Irudi oiek askotan egurrezkoak dire ta barrena ustua daukate, arront utsa. Orrengatik gizon "barrokoak" zaintzen du orrenbeste itxura. Nola ez?, izen ona maite dute. Izen on ori saltzen eta erosten alegintzen dire. Ori lortu ezkerio lo zorroan luze iraun.

Zoriontasuna arrakastaren emaitza bezala ikusia dago; bizitza, sariketa bat da. Adiskidearen ota entzuten da bakarrik. Agintaritzak, adiskideekin lantzen den goxokia biurtzen dute. Eliz-artzantza goxoki bat izango ba litz bezala zatitzen da. Bide ortik Eliza irikia erein bearrean sekta bat lortzen dute; "adiskideentzat" Eliza. Azi ona erein bearrean belar txarra dakarte. Griña txarrak nagusi.

"Barroko" elizgizona bere buruaren billa dabil, itxurak zorutzen du. Aundinaiaren gose orrekin Batikanoko Batzar Nagusiak ezer gutxi ikustekorik dauka.

Adiskideak bakarrik zaintzen ditula eta besteak baztertzen, Kristo'ren Eliza zabaldu bearrean sekta bat sortzen du, sasi-eliza, batez ere belar txarraren lana.

LATXAGA

Amaren itz ederra...
zer esan nai deusazu
seme maiteari...
zabaldu biotz ori
odolak entzun daion
amatasunari.

Itxaso iduri,
errukiaz beterik,
amaren biotzak;
ezagutzen dan itzik
maitetsuentzat zaukaz
biguntasun utsak.

Semearen jaiotzan
erdibi egin ziñan
aurtxoa sortuaz;
nekeak eta miñak
poz biurturik gero,
aunaren zeruan.

Umearen negarrak
zer sorterazi deus
biotz sakonian,...?
Odol bera minduta,
zelan ez dau asmauko
amak min semian...?

Irriparreka dago
udabarri giroan
umea pozetan;
biotz bi bat ein dira
aragi ta odolez
maitasun itzetan.

Aurtxoa lotan dago
seaskatxo barrian
zorion artean;
amesetan dabiltzaz
ama eta semea
zorion utsian.

PAULIN

AMAIUR, 475. URTEURRENA (1522-1997)

Amaiur Gaztelu Baltza

Amaiur gaztelu baltz ori
–berreun gudari oro sumin-
zaintzen zaituen zaldun onek
Naparra-aldez egin dabe zin.

Iskilu gorriz zenbat gazte
bildurbako menditar lerden.
Eta orreek, Jatsu jaun onek,
Xabierreko zaldun guren.

Aurtengo garagarriaren 19 eta 20an Naparroako Erreinuaren aide borrokan egin eben azken aldeztaileren omenez, eregitako gomutagarriaren ondoan, galdutako borrokaldiaren 475. urteurrena ospatuko dabe.

Ikurrin bat –kate ta lili-
dorre goitian zabal dago.
Bera salduko dauan semerik
mendi onetan ez da jai.

Amaiurko atezain orren
zidar turutak oiugatik.
Baztan ibarra zenbat etsai,
arrotz bage ez dago mendirik!

Gaztelako Errege Katolikoak Naparroako erreinuari eraso egin eutsen 1512.eko garagarrilean bere gudarostea bialduta eta Goi-Naparroa bereganatu eban.

Naparroako errege-erreginek Naparroa atzera eskuratuteko saioek porrot egin eben, 1512. urtean 6.000 gudari napar ilda loturik.

Esiturik Amaiur dauka
Mirandako konde espainiarrak.
Onek, bai, burnizko janzkiak,
ta urrezko ezpata sagarrak!

Berekin dator, bai berekin,
Leringo eta orren semea.
Txakur txarrek jango al abe,
erribako zaldun dongea.
Ilabete bat beluago, Amaiurko gazteluan berreun napar batu ziran, Jatsuko jaunak tartean zirala, Medranoko Jaime Velaz jaunaren agindupean. Bizkor eta sendo eutsi eutseen gaztelanar eta beaumontarren gudarostearen erasoei, janari eta laguntza barik lotu ziran artean.

Goiko aldetik asten dira
asten dira suaga otsez.
Orma kontretan zenbat zurgu
eta gezi zorrotzak airez!

Baina dorrean zabal dabil
ikurrin bat –kate ta lili-
nork zapaldu ete daikez
ben-eun gudari orok zoli?
Azkenean, Iruñeko espetxera eroan eta bertan il ebezan Jaime Velaz alkaidea eta bere semea Luis.

Ekintza ori gomutetako 1922ko bagilaren 30ean eregi zan gomutagarria, gaztelua egon zan leku berean, Naparroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako foru aldunak bertanzirala.

Amaiurko gaztelu baltza
–jausi jatzuz dorre goitiak–.
Baina arrotza, ez adi geldu,
napar seme dira guztiak.

Arresti gorri, zubi ausi,
–zein gitxi diran zaldun orreek~.
Erio, samurño zakiez
aberrimin baitabiltz eurek.

Napar batzuk, gomutagarria gure askatasunaren esangarri zalakoan edo, dinamitaz ondatu eben 1931 eko garagarriko gau baten. Amaiurtarrek, bada, 475. urteurrena ospatu gura izan dabe eta orretarako urrengo egitarau au eratu dabe:

Garagarriaren 19an: 21.00etan, itzaldiak.
Garagarriaren 20an: 10.30etan, erriko enparantzan alkartzea.
10.45etan, kalez kalekoa gazteluraino.
11.00etan, gazteluan mezea eta ekitaldiak.
12.30etan, mutildantzak erriko enparantzan.
14.00etan, neba-arreben arteko bazkaria.

Mirandako konde gaizto orrek
jo eizuz zidar turutak.
Ikurrin bat –kate ta lili-
ez dau laztanduko aizeak.

Ben-eun gudari oro sumin
gaztelupean dagoz ilik.
Orditik ona –zenbat laino–,
Naparroan ez da aberririk.

(LAUAXETAREN olerkia)
Iniaki MARTIARTU
1997ko gragarrilean

Berbalapikoa

oro = guztiz, erabat.
aldez egin = defendatu, -run aide egin.
iskilu = arma.
lerden = itxura oneko, dotore, txairo. (gizonak).
guren = onen.
aldeztaille = defendatzaile.
eregi = eraiki, egin.
gomutagarri = monumentu, oroitarri.
goiti = andi, garai.
turuta = tronpeta.
gudaroste = armada.
saio = aalegin.
esitu = inguratu, sitiatu.
ezpata sagar = ezpatearen kirtena edo eskutokia.
donge = txar, gaizto.
suaga = kainoi.
zurgu = egurrezko esku-eskilara.
zoli = kemen, adore.
geldu = arritu, zurtz eginda lotu, txunditu.
arresi = arrizko orma.
aberrimin = aberriaren alde.
esangarri = nabarmen, esanguratsu, adierazgarri.

UDAL TXIT AGURGARRI ORRERI!

Euskera Batzorde onen zereginetariko bat, errian euskerari emoten jakon lekua eta arretea jagotea da. Jagotea ezeze, salagarri diran kasuak bear dan lekuan salatutea be bada.

Orreetariko kasu bi zeuenganatu gura doguz oraingo onetan. Kasuok euskaldungoarentzako salagarri besteko iraingarri diran ezkeru, Udal orren bitartekaritza instituzionalari bearrezko deritxogu, egoera baragarri biok euskerearen aide alik armen zuzendu daiezan. Alan bada:

1.— BUS-geltokiak (BIZKAIBUS)

Egiztatu aal izan dogun lez, BIZKAIBUS dalako pertsonen garraio baltzu orrek euskerari leku eta an-eta baragarria eskeinduten deutsoz.

- a.— BUS-geltokietan bezeroen argibiderako dagozan oarrak, iragarkiak, ordutegiak,... %80an **erdera utsean** dagoz. (Bentako txarteldegian, esaterako) Erdereari emoten deutsozan lekua eta arretea, eurok gitxienez, euskerari be emon bearko leuskioz.
- b.— Bentako txarteldegi nagusian dagoan bearginak euskeraz jakin bearko leuke. Beargin orrek be euskeraz egiten aalegindu bearko leuke. Bezeroei beargina euskalduna dala eta beragaz euskeraz egin daikeela adierazo bear jake. (Beargin ori Bakioko euskalduna balitz, oba).
- d.— Baltzu orrek, ez daigun aaztu, Bilborainoko bidean dagozan ainbat erri euskaldunetako bezero euskalduneri zerbitzua emoten deutse. Busetako gidariak, beraz, euskaldunak izan bear dabe. Ez da, baina, zoritxarrez, ori gaur eguneko egoerea.
- e.— Bai txarteldegi nagusian bai busetan baltzu orretako bearginek euskeraz egiteko gauza dirala eta gertu dagozala zeozelan adierazo bear deutse bezeroei.
- f.— Baltzu orren euskera erabilpen baragarri besteko mingarriaren adibiderako, **MUNGUTA-BAKIO** edo onelango idazkunak erabiltearena da. Gure eritxian, au berealan zuzendu bearrekoa da.

2.— POSTA zerbitzua

Zerbitzu onen euskera erabilpena ia utsaren urrengo da. Au, gure eritxian, Izkuntzen Legedia onartu zanetik urte mordoan joan jakunean, iraingarri izanez ganera, EAEn izkuntzen erabilpenari buruz indarrean dagoan legedi orren aurka-aurkakoa da.

Zerbitzu ori estatuaren menpeko baltzu publiko eta bakarrarena dan ezkeru, estatuko administrazioari legea betetea jagoko. Bakioko Udalak POSTA zerbitzua emoten dauan baltzuari eskari ofizial sendoa egin bearko leuskio, izkuntzen arloan legeak dinona berbaz-berba berealan bete daian. Alan egin ezean, Udal orren eskueran dagozan neurri judizialak artuteko erabagi sendoa dauala adierazoz.

Eskabide eta erabagi oneen barri bai Eusko eta bai Madrileko Legebiltzarretan dagozan euskal ordezkariak jakitun imini bearko leukez Udalak. Izan be, euskal ordezkari abertzaleek onelango antzeko ekintzaren bat egin edota egitekota ei dagoz.

Alan da, be Euskerearen Normalkuntza eta euskerari jagoken duintasunezko lekuari begira, Euskera Batzorde onek aurreko arlo biotan tidal onei, bere izakera instituzionala data bide, arazook zuzendu daiezan aalegin guztiak egiteko eskatu gura leuskio. Alantxe izango dalakoan, agur egiten deusuegu.

Bakioko Euskera Batzordea

ERIoTZA

Eriotzaren otra...
Egiz, gogorra zara
munduko bidean;
amts biribillenak
auts biurtzen dituzu
ixiltasunean.

Gizona egarri da,
egirik aundienaz
asetu naiarik;
berezko maite-miñez
bizia sentitzen dau...
zer dan jakin barik.

Gizonak ez dau sortu
berea daben deia
odoleen garretan;
antzizka dauka ura
zaiñetan gora-bera
misterioetan.

Lanosa ederrena,
gizon amets sorturik,
zara, zu, bizia;
nun da zure itza,
amasaren iturri
eskutu argia...?

Garairik onean
igetaia jatortsu
odola ebaten;
dardar maitegarria
ekaitzak eroan dau,
oro da lertuten.

Biotza gelditu da.
Begi dizdiza galdu
erio mifietan.
Lorea, galdu dozu
lengo maldurtasuna
ixiltasunetan.

PAULIN

PIARRES ADAME

(Jean Baptiste ELIZANBURU)

Idazlea eta bere ingurua

Lapurdiko Sara errian 1828ko dagonilaren 14an jaio zan egilea. Leenengo ikasketak errian egin ebazan eta, gero, Larresoroko Abadetegian jarraitu eban ikasten, abade biurtuteko asmoz edo. Baina abade izateko jokera aundirik ez eukan lez, seminarioko ikasketak albo baten itzi ta Frantziako gudarostean sartu zan.

Abadetegian egindako ikasketak asko lagundu eutsoen olerkigintzan sortuko ebazan olerki eder askoak biribilduteko. Ganera, bertan Gratién Adema –Zaldubi– euskal idazlea izango zan abadea ezagutu eban. Lagun aundiak izan ziran eta adiskidetasun onek euren bizitza guztian iraun eban, aurki.

1849. urtean, bada, Napoleon III.aren gudarostean sartu zan eta 1866. urtean Kapitain izatera eldu ei zan. 1870ean, frantziar eta prusiarren arteko gudea amaitu zanean, frantziarrek gudea galduta eta Napoleon III.ak Frantziatik anka egin bear izanda, Elizanbururen aro militarra amaitu zan betiko.

Gauzak alan egozala, jaioterrira etorri zan atzera.

Urruñako Prantxa Eiherraburu'gaz ezkondu zan eta Sarara joan ziran biziten. Orduetik aurrera. Ezpeletako ingurualdeko bake-epaile izango zan ogibidetzat.

Erioak 1891 ko gabonilaren 31 an eroan eban beragaz.

Olerkietan ezeze, itzlauz be bere ekoizpen literarioa aldi aretako onenarikotzat emoten dabe jakintsuek. Erri berbeteaz baliatu zan bere lanak sortutako, eta oneri bere esku ona geitu ezker, aor bada, erritarrengan izan eban eta oraindikarren dauan arrakastearen unteza. Nork ez dau inoiz abeste...?:

"Ikhusten duzu goizean
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Xakur xuri bat athean,
Ithurriño bat aldean:
Han bizi naiz ni bakean".
(NERE ETXEA)

Izan be, euskaldunen biotz-biotzeraino elduten ondo be ondo ekian, euskal senari, euskal gogoari bein ta barriz azalerazoten eutsola.

Ainbat eta ainbat izan ziran bere lumatik urtendako olerkiak. Oneetatik asko erriak abesti biurtu eta agorik ago Euskalerrian zear zabaldu ebazan. Izenorde asko eta asko erabili abazan, arean da: Harluche, Saratar bat, Sallaberry, Ziburuko Chantrea, Doyarزابال...

Bere gudarialdian sortutako olerki guztien ganetik, SOLFERINOKO ITSUA izenekoa nabarmendu geinke.

Olerki sariketa eta lore-joko askotan artuten eban esku, sari asko irabaziz. Era berean, sariketak olerkigintzarako bultzagarri izan ebazan. Alan bada, saritutako olerki batzuk:

EMAZTE EDALEA (1855 - Urruñan 1. saria)

TAM, TAM, TAM, TAM RATAPETAMPLAN (1858 - Saran 1. saria)

GAZTE HILTZERO DOHANA (1860 - Saran 1. saria)

NERE ETXEA (1861 - Saran 1. saria)

APEXA TA LOREA (1862 - Saran 1. saria)

SOLFERINOKO ITSUA (1864 - Saran 1. saria)

eta beste abar asko.

Onez ganera, PIARRES ADAME izeneko aurre-elebarri laburra itzlauz idatzi eban.

Elizanburu bere sasoiko idazlea zan eta ezin izan eban ekidin erromantizismoak berarengan eraginik izan ez eian.

Olerkari bakezalea eta baketsua izan zan, bere bizitzan gudari ibili bazan be. Baserriko bizibide bakezkoari egiten eutson abestu eta au berau sarritan gaitzat artuko eban. Ainbat guda eta eta ainbat odoljariok Euskalerriazko gomutapenak ekarriko eutsoezan burura.

Politikan bere pentsakerea edo ideologia urrengo lerro oneetan kokatuko geunke:

– kristau sinisteduna, il artekoa.

– errepublikazalea, erriak jasten ebazan bidebakokerietatik askatu bear izatekoaren aldekoa.

Eguneroko bizitzan alkarren aurka ebilzan alderdi biak berarengan batuten ziran. Aurretiaz aurkakotasuna irudi eitekeana, ez zan berarengan ezelan be gauzatuten, aurki.

XIX. gizaldiko irugarren lituratura aroan kokatu geinkez Elizanburu eta bere idazlanak:

* Leenengoan, 1835. urterarte, idazle ugari sortu ziran, Egoaldean batez be: Mogel, Iztueta, J.B. Agirre, Lardiazabal,... Larramendiren eraginpekoak danok, ain zuzen be.

* Bigarreanean, gizaldiko erdi-inguruan edo, L. Bonaparte printzeak sortutako bultzakadeak euskal ekoizpenei ordurarte bizi izandako geldotasunetik urten eragin eutsen. Eta an-or-emenka idazle barriak eurrez agertu ziran: Duvoisin, A. Uriarte, Otaegi.

* Irugarrenean, arean da, Elizanbururena, Iparraldean loraldi bizi ikusi eban euskal literatureak. Urregorritzko aroa, atan be. 1880tik aurrera, Iparraldean lore-jokoak eta txapelketak nongura agertu ziran. Idazle oneek aitatu geinkez: A. Abadia, Hiribarren, Arbelbide, Lapeire, Elizanburu, Adema, Hiriart-Urruti,... Egoaldean, beste aldetik: Bilintz, E. Azkue, Kanpion, Arrese-Beitia, Trueba, Mante-rola, T. Alzaga, Soroa, R.M. Azkue, S. Arana.

Askoren ustez, Elizanburu XIX. gizaldiko olerkaririk onena da. Itzlauz be, leenengo mailakoa, asko ez idatzi arren. Baina urri idatzi baeban be, urritasun ori ontasun aundikoa da izan.

Idaztiaren azterketa laburra

Elizanbururen liburu au euskal leenengo elebarriztat artu izan dabe arloan jakintsuak diran batzuk.

Beste batzuen eritxian, ostera, euskal elebarrigintzearen aurreistorian sailkatu leiteke, Txomin Agirrerren KRESA-LA leenengo benetako elebarriztat euki izan dabela. Antza, idazti au ez dator guztiz bat elebarriaren ezaugarriakaz. Alan da ze:

– Laburregia ei da elebarria izateko, egileak bigarren zatia egiteko asmoa euki ian arren.

– Ari nagusia eta bakarra. Piarres Adame eta Pellok, ari nagusiaren edesleak, Olheta errirantza alkarregaz egiten daben osterea dogu aritzat. Osterea akiakulua baino ez ei da, Piarresek bere berba-jario askatu daian.

– Ekintzeari jagokonez, elebarriaren ezaugarririk garrantzitsuena izanda, idazlan onetan ez dago ekintza loturik, osterea bera ez bada. Piarresek edesten deuskuzan jazokerok ez dauke euren artean lotura argi eta zeatzik, Piarres bera izan ezean. Elebarri guztietan elburua edespena garatutea litzake eta, berau eregitea, atan be. Berori, zeozelan, lotuta egon oi da, ekintza bat edo geiago garatuteko. Norkiek ekintzan/ekintzetan esku artu izaten dabe. Elizanburuk egindako liburu onetan, baina, ez dago orrelangorik.

– Denboran lineala edo zuzena da, atzera begira edespenxuren batzuk egiten baino ez badauz ere. Edespena ostereak irauten dauan aldian garatuten dau idazleak, egun ta erdiko, inguru.

– Norkien mailak bi dira. Ez dabe, baina, norkiek ekintzan benetan esku artuten, ibili baino, eta ibilbidean eureka-riko batek, Piarresek, ainbat jazokera edesten deutsoz bere bidelaguneri, Pellori. Edespenotan ekintzak sortuten dira, edespenok alkarregaz eta idazlanaren ari nagusiagaz zerikusiri andirik ez dauken arren.

– Pello, laguna, arean da, idazlearen eskua ari nagusiaren edesletzat artuten badogu be, badago egon beste azpie-desle bat, Piarres ekintzan edesle bihurtuten dana. Beronek, leenengo pertsona agertuten deuskuz esdesten deuskuzan jazokerak. Bere-berea dan ikuspegitik aurkeztuten deuskuz jazokerok eta naiko subjektiboa agertuten da eginbide orretan.

– Oiturazko irudiak dakarskuz, sasoi aretako bizitzeari buruzkoak, atan be: bizimodua, oiturak, janzkerak,... XIX. gizaldiko euskal gizartearen errealdadera garoaz.

Piarresen filosofia edota bizitzearen ikuspegiaren bidez mezuak jaurtigiten deuskuz idazleak, sasoi aretako ideologiagaz bat egitekotan edo.

– Izkuntza baliabideen artean, alderaketea erabilten dau geien Elizanburuk, batez be, norkien zeazpenak egiterakoan. Izkuntza landuagorantza jo guran nonbait.

Bere literatura-lan guztiak lez, elebarri au lapurteraz idatzita dago. Izan be, beenaparreraz kutsatutako lapurtera literarioan idatzita dago. Iparraldeko euskeran frantzierearen eragina, espainera edo gaskoinerearena baino beluagokoa izan arren, agiri-agirian dago, bada, Elizanburuk darabilan euskera eredu literarioan.

Itanao erabilten dau eurrez. Elizanburuk euskerea men-deratuten ebana argi be argi erakusten deusku liburu onek.

Edespenaren laburpena

Egileak, mutil gazte dala, Olhetako jaietara Piarres Adamegaz egindako joanaldia edesten deusku. Bidean, doazala Piarresek ainbat jazokizun esaten deutsoz Pello gazteari, baina bidean zear bizi izandako jazokerak be badakarz liburuak bere edespenean. Danak aldarte onez beterik, barreak eragiteko lakoez beterik. Bidean aurrera egin aalean, aolku, onu eta eredugarri gura izan leukeen irakatsiak damotsoz bein eta barriz mutilari. Liburuak zortzi atalburu eta eraskin bi daukaz. Goazen, bada, atalburuok labur-labur eta banan-banan garaunduten.

1. atalburua. Aurrean esan lez, Pello Olhetako jaietara doala Piarres Adamegaz alkartuten da eta osterea biok biotara egitea ebazten dabe. Bidea labur egitekotan, Piarres Adamek berari jazotako gorabeera batzuk Pellori esatea eskainduten deutso. Bide batez, Piarres bere filosofia, zentzu onez betetako filosofia, Pellori irakasten aaleginduten da. Aolkuak joan, onuak etorri. Irakatsiak joan, barreak urten!

2. atalburua. Umezaroan, berari Piarreseri jazotako gorabeera bat edesten deutso Pellori: Beinola baten, eta oraindikarren irakurten ez ekiala, oi zan lez, Domu Santuko meza aurre-aurretuan ildakoen aldeko otoitzak diru truke eskainduten egoan. Alango baten, andra bat urreratu jakon eta diru biren truke otoitz egin eiala eskatu eutsen. Aan joan ziran biok eleizearen erdirantza, belauniko jarri eta marmarka otoitz egiten asi zan mutila. Andrea, ozena-ego egin eiala berba eskatu ostean, otoitz egiten ez egiana konturatu zan eta belarrietatik dindilizka eleizatik kanpo aldera atara eban gure Piarres.

Bein kanpoko, entzun bear izan ebazan entzutekoak gure gaixoak.

3. atalburua. Azkainerako bidean mandazain eta beronen mandoakaz egiten dabe alkar bidelagun biok. Piarres eta mandazaina alkarrerri zirika asten dira. Zeinek besteari aundiagoak bota. Azkenean, Piarresek mandazaina agotik madarikazinoak botaten izten dau.

Argi dago norgeiagoka a nork irabazi dauan. Piarres, barreak! Aurreratxuago, iru andra leixibea joten idoroten dabez. Biren soinekoek, belauetaraino jasota, areen aztalak agirian izten dabez. Irugarrenekoak, barriz, estalduta. Lau aztal agirian eta beste biak estalduta egoteko, motzak izan bearko dabezala irugarren andreari bertsoan abestea besterik ez jako otuten gure Piarreseri, bada. Aren andra aren asarrea!

Azkainera eldu ta amaiketako artuten dagozala edari bi eskatuten dauz Piarresek. Pellok edaten ez dauan lez, eta biontzako edariak batek ezin leikezalako edan edo, Piarresek eskoiko eskuaz edontzi bat artu ta dranga!, barrura! geroago, beste edontzia ezkerreko eskuaz artu ta alp!, dzanga!, barrura be. Oba ez!

4. atalburua. Olhetako bidean txiri-txiri doazala, umezaroko bigarren jazokerea dakartso Pellori: Beinola baten, eskolako ikaskide bategaz okaranak ostuten joan ziran. Piarres okaranondora igon eta jakiok batuten asi zan. Alango baten, ugazaba-atsoa begietatik justuriak, agotik madarikazinoak eta eskuz lur-mokorrak berari gorantza

ELERTIA

jaurtigiten agiri zan. Beste lagunok sasitza baten atzean ostenduta. Zaratearen zarataz, mutiltzar bat, eskuan sarda ta guzti, arineketa urreratuten jaken. A zan Piarresen ika-rea eta izerdi otza! Jaungoikoari erreguka asi zan gizagai-xoa.

5. atalburua. Bat-batean, dendua galdu eta adarrrik adar zugatzetik beera arresi baten ganera arretxikoan jausi zan. Aan artu eban artutekoa, aan! Jausi ta anka egin, arineketa otsean egin be. Asago egoanean, mutiltzarrak aren laguntariko bateri egundoko astinaldia emoten eutsola ikusi eban.

Urrengoko egunean, eskolan egoala, uste barik atsoa agertu zan. Maisuarengana arrenguretan joanda, aurki. Dardaratan asi zan Piarres. Maisuak mutilei jagi eragin eta atsoak gure Piarres ezagutu eban. Aurreko egunekoagaitik artu eban gizagaixoak. Ondozik lotu zan. Eta bere onera etorri zanean, abiada otsean, txistua lez etxerantza joan zan. Olango-olangorik!

6. atalburua. Olhetatik ur-ur dagozala, euren begira dagozan Piarresen lobeia eta Pelloren anaieagaz batu ta errian sartuten dira. Bazkarikoan Piarres eta lobeak bata besteari zirika egiten deutsoe eta amaitutakoan Olhetako enparantza nagusirantza doaz. Piarres, orduan, bidean ezagututen dauan bakotxari bertso bana eskainduten deutso. Enparantzan, barriz, muxikoak jotzen diardue eta danon arridurarako Piarresek dantzok maisutasunez, makila eskuan daroala, urratsak pikatuz eta jauziak eginez, egin egiten dauz. Amaitukeran, euren senideen etxera lo egiten doaz eta loak artu baino leen, Espaina aldeko ipuin bat esaten deutso Pellori: Beinola, Madril ondoko erritxu baten Pacheco eta Incarnacion senar-emazteak erregearen udako jauregian bizi ei ziran. Andrea sano naastatzailea eta okerra zan, gizona. barriz, aren gonapean bizi zan.

Andreak, bein nontzebarritan egon ostean, erregearen alabea, saman azur bat lotu jakola eta, il aginean egoala entzun eban. Osagileek ezin ei eikeen ezer egin. Otu ez jakon, bada, andra areri erregearengana joatea eta aren gizona osagilerik onentzat aurkeztutea! Baina, gizonak ezetz esango ebalakoa eta egitekoa onartu eian, astinaldi ederra emon bear jakola esan eutson erregeari andreak. Alan esan, alan jazo. Pachecok, bein erregearenean ezetz ta ezetz, eta besteek Pachecori lepoa ederto baten berotu eutsoen. Alabea alboko gelatik gizagaixoaren aieneak entzun eta osagile andi batenak zirala jakitean, barre-santzoka asi zan eta saman eukan azurtxua askatu jakon. Erregea, pozarren, astinaldia lotu eragin eta aberastasunez bete eban ordurik aurrera izan bearke eban korteko osagile nagusia, au da, gure Pacheco.

7. atalburua. Urrengo goizean, senideen etxean ondo gosalduta ostean eta lobeagaz ondo zirikatuta ondoren, Pellori beronek ondo egin dauan lo itaunduten deutso. Pellok lo bakar baten egin daua a dinotso. Piarresek, orduan, berak bost edo sei lotan egin daua erantzuten deutso. Antza, Olhetako mamarro guztiek bere ogean batzarra euki izan dabe gauean eta ez ei deutsoe lorik egiten itzi. Begiak batu barik egonkeran, mamarroek ezin izan ei dabe Pian-es jan. Eskerrak azken orreri, osterantzean, batek daki! Lobeia, oraindikarren asarreago egon daite. "Batuetan, baten

batzuk olan esaten deutsee euren senideei, onek euren etxetik arinago alde egin daie", dinotso Pellori, besteak entzuteko beste.

Sararako bidean egindako lotualditxu baten, bera lako gizon ospetsurik ez dagoala inguru guzti areetan dinotso Pellori Piarresek. Saratarra izatea oore aundia da, bera lako beste gizon ospetsu batzuk an jaiok izan diralako. Esate baterako, Erremun degibehere gizaldi batzuk aurrerago izandako Sarako alkatea.

8. atalburua. 1555. urteko udagoienean Saratarren eta Zugarramurdiarren arteko gudea biztuteko aginean egon zan. Mugaren aide bateko zein besteko artaldeak alkarreri ostuten ibiltzen ziralako, atan be. Erri bietako alkateak bein Saran, bein Zugarramurdi bazkaritan alkartuten ziran, euren arteko auziak konponduteko.

Erremundegibehere jauna, Sarako alkatea, artalde askoduna zan, aberats-aberatsa. Errotaria zanez, artzain-mutilek jagoten eutsoezan ardiok.

Egun baten, goizean goizetik, areetariko artzain bat arnastetuka joiakon, artaldea Zugarramurdiko praileentzako bear egiten eban artzainek lapurretan egin eutsoela esanez. Guztitara ben-eun ardi.

Erremundegibeherek, bere aldetik, Zugarramurdiko alkatea zan Haranxipiri aren etxera bazkaritan etorri eiten mezua bialdu eutson. Bitartean, udaletxeaneban laguntzailagaz, Lahetxipigaz, auzia arteztuteko jokabidea eratu eban. Mattin erriko txinelari Zugarramurdiarrak etorri ta alboko gelara sartuteko agindua emon eutson, gero Lahetxipi ta biok egongo ziran gelara etorri bearke eban, atea erdi-zabalik itziko ebala. Beste aldetik, praileek ostutako artaldea bereala atzera emon ezik, Zuzenzaingoak bel arriak moztuko eutsezala esanez eskutitz bat idatzi eta bialdu eutson praileen nagusiari.

Orra or, non Zugarramurdiarrak eldu ziran. Agindutako lez egin eban Mattinek eta alboko gelan, areek entzuteko beste, Sarako al kateak zirautson Mattineri: "Bosteun guda-ri Baionatik, Zugarramurdira euren artaldeak askatuten joateko, etorri badatoz bidean. Ardiok eskuratu ta gero praileak eta besteak be urkatuko doguz...". Geroago. Sarakoak besteak bazkaritan joan ziran. Zugarramurdiarrak, gitxigitxi jan ta gero, beinga baten joan ziran lekaideengana eta danaren jakitun ipini ebezan. An egozala, Mattin Erremundegibeherek emondako eskutitzagaz agertu zan. Eskutik eskura lekaiame nagusiari emon eutson eta onek, a irakurritakoan, Sarako alkateari laureun ardi biurtuko eutsoezala esateko eskatu eutson Mattineri.

Laureun ardiok emon eutsoezan emon be, eta onegaz batera parkatuteko be eskatu eutson Erremundegibehereri. Onek irureun ardi berarentzako artu ebazan eta beste eunak erritarren artean banandu ebazan.

Jazokera azken au Pellori edestu ostean elduten dira lagunok biok biotara Sarara eta bakotxa bere bidetik joan orduko, Piarresek esan eutson: "Au guzti au argigarria da, Saran bai orain eta bai leen gizon zuur eta jakintsuak dira eta izan dira".

Iniaki MARTIARTU
1997ko urtarrilean

LI.



- 1.- ari hat geiago adarretan.
- 2.- lurreko bodarra.
- 3.- nota bat gitxiago.
- 4.- betuleak.
- 5.- hegi bat zugatzean.
- 6.- zugatz bat geiago atzean.
- 7.- arri bat geiago.
- 8.- katagorriak belarri baltzak daukaz.

V13?IVU'IV IZIMIZ

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu ^{so}
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.

Betidanik.

~~- Bilbao Bizkaia Kutxa

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK